

Astelehena, 2012ko urriak 1 - 09:35

Hasiera BerriaTB Parte Hartu Blogak Bereziak Kanalak Zuzenekoak

Plaza

bilatu...

Bilatu

Paperekoa PDFn Iragarki laburrak Hitza

Harian | Iritzia | Kirola | Agenda | Plaza

Berria.info » Papereko Edizioa » Plaza

2012-09-29

Sagardoaren ibilbidea prestatu dute Astigarragan

Sagardoetxearen laugarren gunea izango da; sei kilometro eta erdian sagardoaren kultura ezagut daiteke

ERREDAKZIOA DONOSTIA

Aspaldikoa da Astigarragaren eta sagardoaren arteko harremana. Eta, hain zuzen ere, harreman hori sendotzeko zabaldu zuten herrian Sagardoetxea duela urte batzuk. Pixkanaka, haren eskaintza zabaltzen ari dira. Atzo aurkeztu zuten Santiagomendiko Sagardo Bidea, museoaren laugarren gunea izango dena.

Ibilbide tematikoak sagardoaren kultura ezagutzen eta barneratzen lagunduko die bisitariei; horretarako, sagastiak eta sagardoa ekoizten zuten dolare baserrietatik igaroko dira. Gainera, Astigarragako eta bertako baserrien historian barneratzeko modu polita izango da. Bestalde, Donejakue bidearen zati bat ere ezagutuko dute ibilbidea egiten dutenek.

Zortzi geldialditan banatu dute ibilbidea. Sagardoaren kultura modu dibertigarri eta parte hartzailean ezagutzeko, bidean zehar joko, azalpen panel, audio eta asmakizunak topatuko ditu bisitariak.

Oinez, bizikletan edo zaldiz

Guztira, sei kilometro eta erdi ditu ibilbideak, eta oinez bi orduan egin daiteke. Baina oinez egin nahi ez duenak bizikletan edo zaldiz egiteko aukera ere izango du.

Sagardo Bidearen proiektuak hiru helburu nagusi ditu. Batetik, Santiagomendiko landa ingurunea mantentzea; bestetik, ondare historikoa babestea; eta, azkenik, sagarraren eta sagardoaren kultura zabaltzea.



Sagardoaren bidea atzo inauguratu zuten. / JON URBE / ARGAZKI PRESS

Albisterik...

IRAKURRIENAK

Bozkatuenak

Bidalienak

- 1 "Inposatutako mendekotasunik" gabeko nazioa aldarrikatu du Urkulluk
- 2 Guardia Zibilaren esku jarraitzen dute atzo Basaurin abilotutako lau gazteek
- 3 BECen egingo du EH Bilduk kanpainako ekitaldi nagusia, urriaren 13an
- 4 Sarien gaineko balorazioa azkeneko 'Zinemaldi@n' saioan
- 5 Venezuela, hamalau urte jokoan

Hasiera Euskal Herria Ekonomia Mundua Kirola Kultura BerriaTB Parte Hartu Blogak Bereziak Paperekoa

© Berria.info - Euskal Editorea S.L.
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140
Telefona: 943 304 030 / Faxe: 943 590 172
berria@berria.info - www.berria.info
Lege Informazioa



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

1 de 1

01/10/2012 9:36